

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 183. alea - 2014ko martxoa



Leku eske  
aritu zaigu itsasoa






OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS**  
**Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAITZEN



RPS: 183/12

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teleline.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Lersundi, 1. behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Kombinatua

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 618 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Aftariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater kombinatua - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarte  
Erredakzio taldea eta  
kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,  
Ina Oiartzabal, Migel M.Lekube  
(Lutxo), Lukax Dorronsoro,  
Koldo Aperribai, Izaro  
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite  
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider  
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane  
Aizpurua, Haika Aizpurua,  
Nekane Goikoetxea, Mattin  
Urbietza, Mikel Aizpurua,  
Debako Gazte Asanblada,  
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**

Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:**

Ander Salegi

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILERA**



**LAGUNTZAILERAK**



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA KULTURAK  
ETA KULTURA SAIA  
Nahiz eta irizpenei buruzkoak  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceministerio de Política Lingüística



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# aurkibidea

04-05

Debako Gazte Asanblada,  
"Elkartasuna ez da delitua!!";  
Maite Rodriguez, "Ahuakatea  
eta eboluzio anakronismoak".

08

ALBISTEA

Denon Herria  
plataforma sortu da



15

KRONIKA

Aurtengo inauterien  
irudi-bilduma



Juanma Oiartzabal

16

ALBISTEA

Itsasoa leku eske aritu zaigu  
berriz ere



Ander Salegi

17

LABURTAK

I. Manuel Mateos Memorial,  
"Euskararen arnaguneak" tai-  
lerra, Emakumeen Nazioarteko  
Eguna...



18

ZERBITZUAK





Debako Gazte Asanblada

## Elkartasuna ez da delitua!!

Otsailaren 23an erabaki nuen hurrengo hau idaztea. Iker, Enara, Aritz eta laurok Madrilera abiatu ginen, bi egun beranduago itzuliko ginelarik. Ez zen borondatezko bidaia bat, Iker Audientzia Nazionalen epaitua izango zen terrorismoa goraipatzeaz akusatua.

Iker umetatik pertsona aktiboa eta ezaguna izan da Deban: Bandako perkusionista, Kalez Kaleko atabal jole eta Gure Kaiko dantzari ohia, Secuestro Expresseko bateria, DebaRock kolektiboko presidentea, Jai Batzordeko partaidea eta kontzertuetako gestioen arduraduna, Debako Gazte Asanbladako kidea... Eta, nola ez, Debako Elektrotarangako abeslaria.

2012ko ekainaren 30ean, Gasteizko alde zaharreko Zaharraz Harro kolektiboak antolaturiko jaiak girotu zituen Elektrotarangak. Jaietako programaren baitan, euskal preso politiko eta iheslarien senideak omenduak izan ziren kalejira baten bitartez, disperzioak eragiten dizkien kalteak salatu eta beraiengana-ko elkartasuna adierazteko. Elektrotarangak kalejira honetan parte hartu zuen, ibilbidea inprobisatuz.

Egun batzuk beranduago, antolatzaileek kalejiraren bideo bat igo zuten sare soziale- tara eta Dignidad y Justicia, bertako irudiak frogatzat hartuta, salaketa jarri zuen. Harrigarria da Audientzia Nazionalak epaiketa hau aurrera eramatea, Ertzaintzak eta Guardia Zibilak senideen omenezko kalejira honetan deliturik ikusi ez zutenean. Ondorioz, omendu zituzten 11 senideak, 2 bertsolari eta Iker terrorismoa goraipatzeagatik inpu- tatu zituzten, bakoitzarentzat 18 hileko kartzela zigo- rra eskatuz.

“Jo ta ke, irabazi arte”, “Euskal Presoak Euskal Herrira” eta “Segi borrokan, segi antolakuntzan” esa- teagatik, terrorismoa goraipatzen duelakoan epaitu dute Iker. Baina zer da esaldi horietan goraipatzen dena, ETaren jarduera armatua edo senideenganako elkartasuna? Nork ez ditu hitz horiek oihukatu eta bereak egin Elektrotarangarekin dantzatzen duen bitartean?

Madrileko epaiketa zirku hutsa izan zen:

Grande Marlaska momentu guztian portatilari begira zegoen, epaitu eta defendatzen zenak inportako ez balio bezala; fiskaltzaren abokatuaren hitzetan Ikerrek “Jo ta be, irabazi arte” esan zuen, agian J&B whiskey zalea izango da eta epaiketa bukatzean hartuko zuena izango zuen buruan.

Baina momentu gogorak ere izan ziren, inpu- tatutako emakume batek negar malko tartean ondo- rengo esan zuenean: “Ni pentsioduna naiz, alarguna eta nire semea bisitatu ahal izateko jendeak dirua eman behar dit ez naizelako hilabete bukaerara iri- ten”. Disperzioaren krudeltasuna agerian lagatzen zuen honetan, fiskaltzaren eta akusazioaren aboka- tuen jarrera lotsaren lotsaz burua makurtzea izan zen.

Epaiketaren bukaeran Marlaskak inputatu bakoitzari azken hitzak esateko aukera eman zion. Emakume batek guztien izenean hitz egin zuen: “Kartzeletan bisitatzen ditugunak gure alabak, gura- soak, ahizpak, illo- bak, koinatuak... dira, guztiaren gai- netik pertsonak dira eta asko maite ditugu. Disper- tsioa, kartzeletan presoak ez antola- tzeke asmoz sortu zenuten, talde txi- kietan estatu guz- tian zehar sakaba- natuz. Baina saka- banaketa honen krudeltasuna eta kalte gogorrenak guk jasaten ditugu, senideok. Maite ditugun pertsona horiekin 40 minutuz egoteko ehunka edo milaka kilo- metro egin behar ditugu, gure bizitza errepidean joka- tuz eta gure diru-sarreraren zati handi bat bisita haueta- ra bideratuz. Egun horretan, ekainaren 30ean, senide- ok jasaten dugun krudeltasuna salatzeke eta gugana- ko elkartasuna adierazteko antolatu zen kalejira hori. Zuek ez gaituzue terrorismoa goraipatzeagatik epai- tzen, elkartasuna ari zarete epaitzen, elkartasuna deli- tu bilakatu nahi duzue”.

Nik ere emakume horren hitzak nire egiten ditut eta horregatik besarkada handi bat bidali nahi diet disperzioaren krudeltasuna jasaten duten senide guztiei, eta baita zuri ere Iker.

**ELKARTASUNA EZ DA DELITUA!!**

Sabas Bedialauneta Gomez



**\*\*Erredakzioaren oharra:** Aldizkari hau inprentara bidean zela, Iker Vela eta gainontzeko auzipetuak absolbitu egin dituztela jakin zen.

# Maite Rodriguez

## AHUAKATEA ETA EBOLUZIO ANAKRONISMOAK

Espermatofitoek, hau da, hazia duten landareek, bizi-zikloa osatzeko, ugaltzeko eta dispersioa burutzeko, haziak ekoizten dituzte. Animaliak bezala mugitu ezin direnez, landareek haziak barreiatu behar dituzte hazteko baldintza egokiak dituzten lekuetara heltzeko eta inguru berrietara iristeko.

Landareek, haziak urrutira zabaltzeko era desberdinak garatu dituzte. Haizeak haziak barreiatzea nahiko arrunta da eta anemokoria deritzo; hazi anemokoroak, txikitxoak izaten dira edo hegan egiten laguntzeko mekanismoak izaten dituzte, txikoria-belarraren (*txixa lorrena*) jausgailu moduko hazi-txoak bezala. Hidrokoria (ura denean garraibidea), irla edo urertzetan ohizkoa da eta adibide ezagunena kokoa da. Zookoria (animaliek haziak garraiatzen dituztenean) ere arrunta da. Ektozookoria denean, haziak kako edo kola moduko laguntzak erabiltzen dituzte animalien azaletara itsasteko. Endozookorian, berriz, animaliek haziak irensten dituzte. Horretarako, haziak animalientzat erakargarriak izan behar dira, fruitu mamitsuak. Landareak energia dezente erabil dezake animaliak elikatuko dituen mamia osatzen, haziak barreiatzearen trukean. Eta noski, intsektuak, txoriak edo animalia handiagoak jateko haziak ezaugarri desberdinak dituzte. Txoriek jaten dituz-

ten fruitu gehienak, adibidez, txikiak eta gorriak izaten dira eta nahiko mami gutxi dute.

Ertamerikan, tamaina handiko haziak dituzten fruitu mamitsuak hazten dira; ahukatea adibidez. Ahukate hazia, golf pelota baten tamainakoa da gutxi gorabehera eta olio eta kaloria ugariko mamiz eta larru itxurako azal gogorrez inguratua dago. Aurreko sailkapenean endozookoroa izango

litzateke, baina gaur egun ez dago golf pelotaren tamainako hazia irenstea (edo hesteetatik pasatzea) kontatzeko bizirik iraungo lukeen animaliarik Ertamerikan. Dan

Janzen-en iritiz, azalpena nahiko erraza da; ahukate eta beste antzeko fruituen garraiolariak zirenak ez dira gehiago existitzen, desagertu egin ziren. Gonfoteroak (elefante antzeko animalia erraldoiak) edo lur nagiak (kamioi batek beste pisatu eta hiru pisuko etxebizitza baten alturako animaliak) guk mahats ale bat hazi ta guzti baino errazago jango lituzkete ahukateak. Tamalez, duela 10 mila urte

baino gehiago desagertu ziren, eboluzio anakronismoa sortuz. Batera eboluzionatutako landare eta animali taldearen alde bat galdu arren ahukateak bizirik dirau. Eboluzio aldetik 10 mila urte asko ez direnez, batek daki ahukateek ze itxura edukiko duten beste milaka urte barru; beraz, ahukateak gustuko izanez gero orain aprobetxatu!







## “Nazio bat gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarron garaia da”

**GURE ESKU DAGO** ekimena martxan dago. Euskal Herri mailan sortu den dinamika berritzailea guztiz berria da. Zer esan nahi du honek? Auzoz auzo, herriz herri, hiriz hiri zabaltzen ari da helburu nagusi batekin: herritarrak aktibatze bitartekoak eskaini. Jakin badakigu helburu hori ez dela eskuratzen egun batetik bestera. Horregatik, plangintzak denon artean egingo ditugu, aniztasuna eta dibertsitatea ziurtatuz. Zeinen artean? Sentsibilitate guztien artean. Ideologia eta eremu desberdinetako jendearen artean. Bertakook eta hona lan egitera etorri garenok; emakumezkoak eta gizonezkoak; gazteak eta zaharrak; langileak eta paroan daudenak; euskaldunak eta erdaldunak. Anitza, parte-hartzailea, horizontala, demokrazian murgilduta.

Hitz politikak besterik ez ote diren hauek? Ba, nazioarteko legerian jasotako eskubide demokratiko eta unibertsean oinarrituak dira. Eta herritarrok egin behar duguna martxan jartzea da, zalantzarik gabe. Praktikan jarri behar da. Egunez egun. Eremuz eremu. Gure etorkizuna gure eskuetan dagoelako. Egia da, horretan sinistu behar dugu. Pausuz pausuz.

Euskal Herrian bizi den gatazka politikoan du iturburua ekimen honek, oinarri demokratikoa sortzearen aldekoa da. Noski, errespetuzko joera batekin, positiboak. Gure abestiak esaten duen bezala: “Guk ez dugu aldarri egi-

teko, heroi edo konkistarik. Borondateak elkartzen gaitu, herri izan nahiak”.

Helburu horiek eskuratzeko, deia luzatzen diegu herritarrei erabakitze eskubidearen inguruan batzeko. Aniztasuna, askotarikotasuna, desberdinen arteko kidetasuna. Ekintza bateratuak, eraginkorrak aurrera eramateko. Hori lortzea ez da erraza, ez. Baina indarrak metatuko ditugu, guk geuk azalean eta gordean ditugun indarrak. Guztion indarrak. Indibidualak eta sozialak.

Gure Esku Dago ekimenak joan den otsailaren 16an egin du bere hastapena Deban. Aurkezpena arrakastatsua izan zen, 60 bat lagun bertaratu ginen eta handik aurrera indartsu ari gara saiatzen. Aste bat beranduago, hau da, otsailaren 23an, Plaza Berrian ipini dugu gure mahai apala... Eta ehun pertsonak baino gehiagok eman diote beraien atxikimendua erabakitze eskubideari, ehun herritarrek erosi dute beraien metroa gizakatean parte hartzeko. Beste ekitaldi batzuk egiteko ditugu gure plangintzan, ekitaldi anitzak Debako herritarrek, elkarteek, gazteek zein nagusiek parte hartzeko; eta datozen asteetan emango diogu herriari ekimen horien berri, zuek gurekin egiteko, guk zuekin, denok batera.

GURE ESKU DAGOren lehenengo ekitaldi nazionala eta gure ekimenaren etorkizunerako abiapuntua zera





da: ekainaren 8an Iruñetik Durangora, Durangotik Iruñera GIZA KATEA egingo dugu. 123 kilometro luze borondatez beteko dituen giza katea, erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarrikapen ozenarekin. Gutxienez 50.000 lagun bertaratu-ko gara, zu tartean. Entzun, entzungo gaituzte Europa osoan.

Dakizuenez, giza kate honetan parte hartzeko, bakoitzak bere metroa erosi behar du, bost euroren truke. Debako lantaldeak ditu esku-orriak betetzeko eta honekin batera atxikimendua emateko. Debako herritarrei Bergara eta Antzuola artean dagokigu giza kate honetan parte hartzea, 32. kilometroan. Hori izango da gure kokalekua. Denok batera autobusez joango gara egun seinalatu horretan festa hiritar horretara, gure laguntza eskaintzera. Gure artean han antolatuko dugu gure jai eguna.

Baina, giza katea baino lehenago, beste ekitaldi nazional bat izango dugu Bilboko La Casillan hilabete honetan, martxoaren 29an. Elkarretaratze festiboa izango da eta bertan kamisetak, poltsak eta bestelako material ugari eskuratzeko aukera izango dugu; eta han Ados Guneko lagunek ekimen honen inguruko berriak kaleratuko dituzte (zenbat garen, noraino zabaldu den dinamika hau eta, agian, beste erabaki garrantzitsuren bat ere). Autobusez joango gara Bilbora. Gonbidatzen zaituztegu jai egun on bat gurekin pasatzera (izena emateko lekuak: Maxi, Arena, Arkatza, Masillo, Gaztetxe eta internet: [gureeskudago.deba@gmail.com](mailto:gureeskudago.deba@gmail.com)).

**HERRITARRON ESKU DAGOELAKO, GURE ESKU DAGOELAKO, PAUSO BAT AURRERA EMAN BEHAR DUGU.**

*Debako Gure Esku Dago*

2014ko ekainaren 8an burutuko den

# GIZAKATEA

123 Km

Durango Iruñea

50.000 pertsona

## Denon Herria plataforma sortu da, Itziar Auzo Udal izateko prozesua babesteko



**“Gaur hemen gaudenok Auzo Udala Bai esateko elkartu gara: Itziar Debako Auzo Udala izatea nahi dugu”. Horixe da, hitz gutxitan, Denon Herria plataforma sortu berriak aurkezpen-ekitaldian egindako aldarrikapen nagusia. Deba eta Itziarko hamarnaka lagun bildu ziren martxoaren 1ean Aldats pilotalekuan burututako agerraldian.**

“Auzo Udala Bai” aldarrikapenak batzen ditu Denon Herria plataformako kideak eta bide horretan Debako Udalak martxan jarri duen prozesu administratiboari laguntzeko helburua dute. Horixe azaldu zuten plataformaren lehenbiziko agerraldi publikoan hitza hartu zuten Ander Zulaikak eta Maider Aizpuruak. “Prozesu hori gartzen ari den Alderdien Mahaiari ere gure babesa adierazi nahi diogu –erantsi zuten-. Txalotzekoa iruditzen zaigu, mahai horretan urteetan zehar dauden alderdi guztiek erakutsi duten jarrera eraikitzailea eta Auzo Udalaren inguruan dagoen kontsentsu zabalari eusteko egiten ari diren ahalegina”.

Zulaikak eta Aizpuruak nabarmendu zuten Denon Herria plataformak “berezitasun” bat daukala: “Debako eta Itziarko herritarrok osatzen dugu. Debarrak eta itziartarrak batera goaz, guztiok helburu bera daukagulako: Deba denon herria izatea nahi dugu”. Plataformakideen esanetan, hain justu, “bai Debak eta baita Itziarrek ere bakoitzak bere posizio maximalistak albora utzi ditugulako da posible batasun hau”.

### “Auzo Udala kontsentsuaren espazioa da”

Denon Herria plataforma herrikoiak “Auzo Udala kontsentsuaren espazioa” dela defendatzen du. “Auzo

Udalak egiten du posible, gaur hemen ikusten den bezala, itziartarrak eta debarrak behingoz elkarrekin eta batera goazela erakustea –gaineratu zuten hizlariak-. Konponbideak lortzeko akordioan sinisten dugu. Baina horretarako sektarismoak albo batera utzi behar dira”, ohartarazi zuten.

Agerraldian gogorarazi zuten, Itziar Auzo Udal izendatzeko prozesu administratiboak beste hiru edo lau hilabete iraungo du eta, bitarte horretan, prozesu hori laguntzeko asmoa du Denon Herriak.

Horretarako, hainbat ekimen iragarri ditu plataforma herrikoiak, “debarren eta itziartarren artean zabaldu diren mamuak uxatu” eta “akordioaren eta konponbidearen alde egiteko” helburuarekin. Aipatutako ekimen horien artean, lehenbiziko hitzordua martxoaren 15erako deitu zuten, Deban Auzo Udal Eguna ospatzeko asmoa zutela iragarritz. Bide batez, Debako eta Itziarko herritar guztiei egin zieten hitzorduan parte hartu eta Auzo Udalari beren babesa erakusteko gonbidapena.

Denon Herriak izaera irekia duela ere nabarmendu nahi izan dute plataformako kideek: “Norbaitek parte hartu nahi badu gurekin harremanetan jartzera animatzen dugu, gutako edozeinengana joz edo facebook-en bitartez (denon herria)”.



**Debako eta Itziarko herritar ugarik babestu dute, maila pertsonalean, Denon Herria plataforma. Horien artean daude, besteak beste: Lukax Dorronsoro (antzerkilaria), Jose Luis Mugerza “Elgetzu” (bertsolaria), Bakarne Urkiri (irakaslea), Pepe Turrillas (ESAIT), Zuriñe Gredilla (egur lanketa), Ibon Aranberri (artista), Jose Landa (eguraldi gizona), Haritz Azkarraga (Tabakalerako gerentea), Osa anaiak (kirolariak), Aitor Bilbao (enpresaria), Hodei, Olatz eta Mikel Arrizabalaga (Zumaia taldeko arraunlariak).**



# Euskara eta euskal kultura indartzeko ekarpena egiten jarraitu zuen Zuhatzak 2013an



## **Zuhatza Berriketan aldizkaria:**

Hilabetekari euskalduna kaleratzen jarraitu genuen; hamaika argitalpen guztira, 1.400 aleko tiradarekin.



## **Mintzalaguna:**

Urtea bukatzerako, hiru talde eta 15 bat lagun euskararen erabilera sendotzen.



## **Euskal Jaia:**

Markak hautsiz, Aldats pilotalekua txiki geratu zitzaigun beste behin; 700 lagun euskal kulturari arnas ematen.



## **Korrika 18:**

AEKrekin elkarlanean, erakustaldi ederra antolakuntza lanetan, eta herriaren parte-hartzeaz... zer esanik ez!



## **Kolore Anitz aisialdi taldea:**

Haurrei eta gazteei euskarazko aisialdi jardueren eskaintza zabaltzeko eta aberas-teko erronkarekin lanean.



## **Literatur lehiaketa:**

DBHko ikasleen artean idazmena eta irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoari eutsi genion.

Ekimen eta proiektu horiek bultzatzeaz gain, Zuhatza Euskara Elkarteak bestelako makina bat lanetan ere jardun zuen 2013. urtean zehar: haurrentzako udako kultur ekimenak, Euskararen Eguna, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Zubeltzu bertso paper sariketa...

Egitasmo horiek guztiak aurrera atera ziren arren, euskalgintzak bizi duen egoera ekonomikoa ez da samurra eta Zuhatzari ere zuzenean eragin dio horrek.

## **Baina, zer egin nahi du elkarteak etorkizunean?**

*Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamikari jarraipena eman nahi diogu, elkarlanean eta auzolanean. 2014ko elkarteko batzar orokorra burutu zuen Zuhatzak otsailean eta bertan aurrera begira eman beharreko urratsak definitu zituen. Goian aipatutako ekimenei eutsi, eta bestelako erronka batzuk ere zehaztu ditu euskara elkarteak. Elkarteak indartu eta egoera ekonomikoa hobetu ahal izateko, bazkideztza kanpaina berria abiatzea eta autogestiorako bidea lantzen jarraitzea aurreikusi du. Eta hori guztia lortze bidean, zer hobe zu zeu ere mugimendu honetako parte izatea baino? Hurbil zaitez Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera!!! Ateak zabal-zabalik dituzu!*




## 2014rako udal aurrekontuen nondik norakoak

Debako Udalak 6.667.304 euroko aurrekontua onartu du 2014rako. Eta aurrekontu bateratua –udal aurrekontua eta patronatuei dagokiena (Deba Musikal eta Arte Eskola)– 6.972.913 eurokoa izango da. Udalbatzak otsailaren 6ko plenoan onartu zituen aurrekontuak, aldeko hamar botorekin –Alternatiba, EA, Ezker Anitza eta Aralar zein Herria Sortzen–. EAJko hiru zinegotziek kontra bozkatu zuten.

Udal gobernuaren arabera, azken bi urte eta erdiko balantzea “positiboa” izan da; batetik, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko fondo foralaren itzulketa egin delako –1.119.000 euro itzuli dira guztira–, eta, bestetik, iazko fondo forala udalaren aldekoa izan delako, 83.747 euro, hain zuzen ere. “Hori guztia urte hauek kudeaketaren ondorioz sortu den gerakinari esker egin da, mailegurik eskatu gabe, eta altxortegian eraginik izan gabe”.

Maidar Zubikarai alkatearen esanetan, “aurrekontu hauek aurreikuspen errealean oinarrituta daude, fondo foralaren sarrerarekin zorrotz jokatu eta horren ehuneko handi bat gordez. Bestalde, gastuen etengabeko jarraipena eta errebisioak eginez, gastuak optimizatzea lortu da, aurrekontuetan desfaserik eman gabe, eta aurrerapenak ere eginez”.

Batzordeetako jardueretan eraginik edo kalterik ez eragitea izan da aurrekontuak garatzeko orduan jarraitu duten beste irizpide nagusietako bat. Horrez gain, udal gobernuak jakinarazi du aurrekontuak adosterakoan honako beste irizpide hauek ere hartu dituela kontuan: “Kulturaren, gure ondarea balioan jartzeko apustuarekin jarraituko dugu, herri euskaldun baten izaeran euskararen sustapena bultzatuz. Ingurumenean, gure baliabideen jokabide arduratsua bultzatzeko jarduerak sustatuko ditugu. Turismoan, Geoparkearen apustuarekin jarraitu eta indartzea dugu helburu. Kirolean, herri-



ko dinamikan lagundu eta kirol berriak sustatu nahi ditugu. Gizarte Ekintzan, beste herriekiko elkartasuna landu eta gizarte eragileei laguntzak eman eta gizarteratzeko programa berriak egin nahi ditugu. Eta, azkenik, Itziarko batzordea ere indartu nahi dugu”.

### Inbertsioak

Azken bi urteotan, herrian hainbat inbertsio txiki egin dira. Horien artean daude, adibidez, Artzabalgo bideko magala egonkortu izana edota herriko talde ezberdinen jarduerak aurrera eramateko Osioko lokalen egokitzapena, Gaztelekua ere bertan kokatuz. Gaztetxeko teilatuaren zati bat berritu da, gazteekin elkarlanean, eta Agirretxeko bihurgunea ere konpondu da. Besteak beste, hilerrian nitxoak egin

dira, Itziarko frontoia itxi da eta Geoparkearen aldeko apustuarekin jarraituz, interpretazio gunea ezarri da turismo bulegoan.

Aurten, Debako Udalak 135.500 euro bideratuko ditu inbertsioetarako. Udal gobernuak azaldu du arlo honetan irizpide garrantzitsuetako bat kanpo finantziarioa lortzea izango dela. “Esan dezakegu martxan dauden herri-rako bi inbertsio garrantzitsu, Aterpetxea eta futbol zelaiko aldagelak, ildo horretatik joan direla, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Futbol Federazioaren laguntza jaso dute eta. 2014. urtean martxan jarriko direnak ere bide horretatik landuko dira: Santa Katalina igoerako magala, Lasturko argiteria eta kiroldegien berritzea, adibidez”.

**Seven Clovers**  
Irish pub

**Gozatu gure garagardoa**

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



## BERRIKETAN GAZTEA

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.  
2014ko martxo

Aurten, aurreko urteetan bezala, San Balentin eguna iristen, Mendatako ikasletxean amodiozko testuen lehiaketa egin dute. Maila guztietako ikasleek parte hartu dute; horrez gain, muralen lehiaketa bat ere izan da, Plastikako irakasleek antolatuta.

Liburutegi batzordeak antolatuta egin da maitasun testuen lehiaketa: lehen eta bigarren mailakoek poesia egin dute –lehenengo mailakoek gaztelaniaz eta bigarren mailakoek euskaraz–, hirugarren eta laugarren mailakoek maitasuna gaitzat harturik prosazko testu bat egin dute –hirugarren mailakoek gaztelaraz eta laugarren mailakoek euskaraz–. Sari banaketetan, epaimahai aditu batek mailako sari bana eman du eta ikasleok botoa eman dugu beste sarituak aukeratzeko.

Aurtengo saria: 25 euroko bonoak jaso dituzte liburutan gastatzeko.

Epaimahaiak aukeratutako irabazleak hauek izan dira: 1.DBH-koa Julen Ayastuy, 2.DBH-koa Janire Salegi, 3.DBH-koa Laura Aranegi eta 4.DBH-koa Gaizka Aldalur. Ikasleen botoetan oinarrituz, irabazleak hauek izan dira: 1.DBHn Aitor Sagarna eta Nerea Aizpurua, eta 3.DBHn Aitor Gonzalez.

2. eta 3. mailan ez da saririk banatu, ikasleek emandako boto kopurua ez zelako nahikoa izan.



## Amodiozko testuen lehiaketa antolatu dute Mendatan

## Futbolak euskaldunak banatzen al gaitu?

Athletic eta Erreal oso bilduta zeuden Iribarrek eta Kortabariak legez kanpoko zen ikurriña lehenengo aldiz atera zutenean. Gaur egun, beriz, dena zeharo desberdina da, oso harreman txarrak daude jarraitzaile askoren artean eta borrokak, irainak egon izan dira.

Esaterako, interneten mezu anonimoak erabiliz egiten dira salaketak. Batzuek esaten dute Gurpegik dopinga erabili izan duela eta besteek Eufemiano Fuentesi, Puerto doping auzian sartuta dagoen medikuari, odolezko poltsa batzuk aurkitu zizkiotela RSOC hizkiekin etiketatuta. Interneteko foroetan lekuz kanpoko irainak agertzen dira eta hori ez da oso atsegina. Polemika sarean dago.

Bestalde, errealzaleak kexu dira Athletic-eko zale batek txiza egin ziolako Ormaetxearen eskulturari, Anoetako aulkiak apurtu eta pintadak egin zituztelako. Athleticzale askok, ordea, esaten dute Errealekoek zurigorriek Atlético Madrilen kontra galdu zuten finala ospatu zutela herri askotan eta nahiago izan zutela Aitor Zabaleta hil zutenekin bat egin.

Futbolzale guztiak ez dira berdinak: askok futbola kiroltasunez bizi dute, baina beste batzuek, ordea, kirolariak eta kontrako zaleak iraintzea dute helburu. Guk lagun artean kiroltasunez bizi dugu futbola eta ez da inoiz haserre seriorik egon. Artikulu hau idatzi dugunak ere bata Errealekoa eta bestea Athletic-ekoa gara eta bat gatoz pentsatzean, zelaian lehiatu arren, zelaitik kanpo euskaldunok anaitasunez bizi beharko genukeela norgehiagoka hau.



Iribar eta Kortabarria legezatu gabeko ikurriñarekin atera ziren Anoetan.





# ELKA RRIZ KETAK

## Kalekumia eta baserritarra

Gaur bi bizimodu desberdin konparatu ditugu, baserriko eta herriko bizitzak. Alde batetik, Julen Izagirre elkarrizketatu dugu, Aittola-Berrin bizi den 14 urteko mutila. Bestetik, Josu Arufe kaletarra dugu, Deban bizi dena.

**Josu Arufe:**

**“Nahiago dut herrian bizi”**

**Gustatzen al zaizu baserria? Zerekin lotzen duzu?**

Ez zait asko gustatzen. Ganadu usaina etortzen zait burura. Gainera, herri-  
tik urrun isolatuta egoten dira. Naturan bizitzea, hala ere, ez dago gaizki.

**Kaleko bizitza baserriko bizitzarengatik aldatuko al zenuke?**

Ez, nahiago dut herrian bizi.

**Hiri handi batean bizitzea gustatuko al litzazuke?**

Hiriek gauza onak eta txarrak dituzte, baina nahiago dut herri batean bizi, herrian nire lagunak ezagutzen ditudalako.

**Zein alde on eta alde txar ikusten dizkiozu kaleko bizitzari?**

Herrian lagunekin geratzeko aukera dut, baina hemen ez dugu baserrian dagoen lasaitasuna.

**Baserrietako gazteek laguntzen dute baserriko lanetan, zuk ere egiten al duzu halakorik?**

Egia esan ez dut asko laguntzen, goizetik gauera arte kalean ibiltzen naiz.



**Julen Izagirre:**

**“Kaleko bizitza ez zait atsegina iruditzen”**

**Gustatzen al zaizu baserriko bizitza? Zergatik?**

Bai, asko gustatzen zait. Ez naizelako inoiz aspertzen.

**Zein alde on eta alde txar ditu?**

Alde ona beti dagoela zerbait egiteko eta alde txarra herri-  
tik urrun bizi naizela.

**Nolako lanak egiten dituzu Aittola-Berrin?**

Azpiak atera, belarra atera... gauza asko daude egiteko.

**Gogorra al da baserriko bizitza?**

Ez, behin ohitzen bazara ez da batere gogorra egiten. Hasieran, baina, gogorra egiten da normalean.

**Baserriko bizitza kaleko bizitzarengatik aldatuko al zenuke? Zergatik ez?**

Ez, ez nuke aldatuko. Kaleko bizitza ez zait atsegina iruditzen.

**Animaliak al dituzu baserrian? Zeintzuk?**

Bai. Behiak, txerriak, ardiak, txakurrak eta katuak.

# San Balentin

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean San Balentin egunari buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Zuretzat zertan datza San Balentin eguna?
- 2.- Ospatzen al duzu?
- 3.- Norbaiti oparirik egin al diozu?
- 4.- Zer egin duzu egun horretan?
- 5.- Norbait edukiko bazenu, nola ospatuko zenuke?



## Arkaitz Torres:

- 1.- Maitasunaren eguna da.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Egun arrunt bat izan da.
- 5.- Berarekin geratzen.



## Ane Amutxastegi:

- 1.- Maitasunaren eguna da.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez dut uste.
- 4.- Beste egun batzuetan egiten dudana.
- 5.- Ez dakit.



## Irati Albizu:

- 1.- Maitasunarekin zerikusia duen egun bat da.
- 2.- Bai.
- 3.- Seguruenik bai.
- 4.- Ez dakit.
- 5.- Berarekin geratzen.



## Nagore Gonzalez:

- 1.- Maitasunaren eguna da.
- 2.- Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Kalera irten, beti bezala.
- 5.- Berarekin geratzen.



## Julen Monasterio:


- 1.- Egun normal bat dela iruditzen zait.
- 2.- Ez.
- 3.- Hori ez dago jakiterik.
- 4.- Lagunekin pasa dut eguna.
- 5.- Berarekin ospatuko nuke, gustuko dituen gauzak egingez.



## Maitane Morcillo:

- 1.- Niretzat beste egun normal bat da.
- 2.- Bai, mezu bat bidalita agian.
- 3.- Ez dut uste.
- 4.- Gainontzeko egunetan egiten dudan gauza bera, kalera irten edo ikasi.
- 5.- Opari bat egingo nioke, eta berarekin geldituko nintzateke.





# DenBord-pasa

## QUIKITU LAUKIAN GALDERETAKO animalien izenak

- 1.- Salto egiten du, uretan bizi da, oso azkarra da eta mutur luzea du.
- 2.- Hiru fase ditu, eta hegoetan kolore biziak ditu.
- 3.- Oso ondo ikusten du, hegan egiten du, mendian bizi da eta harraparia da.
- 4.- Gizakiaren lagunik hoberena da eta katuak jarraitzen ditu.
- 5.- Munduko animalia handienetakoa da, eta batzuek hortzetan bizarra dute.
- 6.- Oso lepo luzea du, eta zuhaitz han-

- dieta hostoak jaten ditu.
- 7.- Adarrak dituzte, beti elkarrekin ibiltzen dira eta estanpidak egiten dituzte.
- 8.- Euskal Herrian asko ehizatzen da, eta kanpoaldera ateratzen zaizkion letagin txikiak ditu.
- 9.- Txikia da, moko txikia du, hegan egiten du eta nonahi aurki dezakegu.
- 10.- Pakearen ikur bihurtu da eta gehienetan grisa eta txuria izaten da.
- 11.- Beltza da, eta beleak baino kolore

- ilunagoa du; gainera, maiz erabili ohi dugun euskal esaera zahar bat dago harekin lotua.
- 12.- Bere esnea edaten dugu, eta ahuntza baino handiagoa da.
- 13.- Zozoak baino kolore argiagoa du eta, gainera, esaera batean aipatu ohi dugu.
- 14.- Australian bizi da, zuhaitzetan, eta oso gutxitan jaisten da lurrera.
- 15.- Katuak jaten du, txikia da eta etxeetan sartzen da maiz samar.

1	8	B	A	S	U	R	D	E	7
1	A	I	R	O	X	T	9	A	N
Z	A	U	G	A	S	15	10	F	U
U	A	L	A	O	K	14	U	A	A
R	A	E	L	E	B	13	S	R	5
D	A	I	H	E	B	12	O	I	B
E	A	O	Z	O	Z	11	A	J	A
A	O	N	A	R	R	A	3	6	L
4	T	X	A	K	U	R	R	A	E
2	T	X	I	M	E	L	E	T	A

## HITZ MISTERIOSUA

Asmatu emaitza eta esaldia:



95 X 15 =	12675 = S
25 X 7 =	130 = I
82 : 2 =	9 = A
4 X 83 =	135 = A
5 X 81 =	175 = K
13 X 2 =	41 = R
5 X 14 =	332 = I
18 : 2 =	405 = S
62 X 2 =	26 = T
65 X 195 =	70 = A

## EGILEAK: Iñigo Egaña eta Julen Aristi

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRONTSO TAILERRA 2013-2014

Aitor Gonzalez  
Alex Martija  
Unai Matias  
Ekaitz Zubimendi  
Kimetz Juaristi

Maite Aldabaldetretu  
Alex Alonso  
Julen Aristi  
Josu Arufe  
Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meababasterretxea





Induteriak  
2014  
Iruditari





## Itsasoa leku eske oldartu zaigu



Irudiak: Ander Salegi

## Garbigune berria eskualdean

Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak, gaikako bilketarako azpiegiturak sendotu nahian, garbigune berria ireki du Eibarko Azitain industrialdean. Instalazio berriak 852.000 euroko inbertsioa eskatu du, 2.000 metro karratuko azalera dauka, eta mankomunitateak kudeatzen duen sarea osatzera dator, aurretik martxan zeuden Elgoibarko, Ermua-Mallabiko eta Deba-Mutrikuko instalazioekin batera. Mankomunitateko partikularrak, igeltserotzako gremioak eta pneumatiko-ekoizleak ditu jomugan zerbitzuak, eta doakoa da.

Garbiguneari esker, gure eskualdeko birziklapen tasak %5 egingo duela gora aurreikusten dute Mankomunitateko arduradunek. Izan ere, hondakin batzuk, beren tamaina edo izaerengatik, ez dira egokiak bide publikoan kokatutako edukiontzietan biltzeko, eta garbigunean hondakin horiek gaika biltzeko aukera



izango da. Besteak beste, honako hondakin hauek eraman daitezke garbigunera: etxean egindako obra txikietakoa hondakinak, plastiko birziklagarriak, beira laua, kartoizko enbalajeak, tamaina handiko gauzak, pneumatikoak (hagunik gabe), plastiko birziklagarriak, aparatu elektriko eta elektronikoak eta abar. Etxeko hondakin berezietarako gunek ere gordeko da: telebistak, auto-bateriak, olioak, fluoreszenteak, tinta-tonerrak eta kartutxoak,

pilak... Herritar partikularrak dira zerbitzuaren jomuga nagusia, eta, horregatik, astean gehienez 2 metro kubiko eta 250 kilo hondakin utz daitezke bertan, obra hondakinetan izan ezik (azken kasu horretan, astean 500 kilo uzteko aukera izango da).

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara emango da zerbitzua, eta larunbatetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara.



## “Euskararen arnaguneak” tailerra egingo da apirilean

Apirilaren 4an eta 11n, “Euskararen arnaguneak” tailerra eskainiko da Agirre jauregiko Ispiluen gelan. Debako Udalak, Zuhatza Euskara Elkarteak eta UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak elkarlanean antolatuta dituzte jardunaldiak, eta “arnaguneak” euskararen biziraupenean eta normalizazioa lortzeko lanean duten garrantziaz jabetzea eta horiek zaintzeko zein hedatzeko herritar taldeak aktibatzea da” egitasmoaren helburua.

“Arnagunea” soziolinguistikan gero eta gehiago erabiltzen den kontzeptua da; eguneroko bizitzan euskara nagusi duten espazioak edo guneak dira arnaguneak. Tailer honen bidez, herri mailan herritar taldeak aktibatu nahi dira arnaguneak hedatzeko, eremu berriak irabazteko, alegia. Horrela, euren eguneroko bizitzan euskaraz bizi ez diren eremuak eta horren arrazoiak identifikatu, eta zailtasun horiei komunitate gisa aurre egiteko urratsak ematera bultzatu nahi da.

Tailerra herriko euskaltzaleei zuzenduta dago eta doakoa da. Bi orduko bi saio izango dira: apirilaren 4an, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara eta apirilaren 11n, ostiralean, 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako: kontsultatu [www.uema.org](http://www.uema.org) edo jarri harremanetan Udaleko Euskara Sailarekin (943 19 28 40) zein Zuhatza Euskara Elkartearekin (943 19 13 83). Animatu eta parte hartu!!



## Martxoaren 31n amaitzen da Zubeltzu bertso paper lehiaketan parte hartzeko aukera

Abian da ZUBELTZU bertso paper sariketaren bosgarren edizioa. Debako Udalaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen arteko ekimen honek, hiru maila bereizten ditu: LHko neska-mutilak, DBHkoak eta hortik gorakoak. Maila bakoitzari ariketa diferentea egitea eskatzen zaio; lehenengo bietan gaia jarrita eta helduenean, berriz, libre lagata. Sariketa Debako eta Itziarko herritarrentzat antolatuta da eta bertsoek jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izan beharko dute. Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 31a izango da. Horiek Debako Udaletxean edota Zuhatza euskara elkartearen entregatu ahal izango dira, esan bezala, data hori baino lehen. Lanak euskarri telematikoen entregatzea eskertuko da (CD, pendrive edo mezu elektronikoko bidez), oinarrietan agertzen diren helbideetaren batean. Oinarriak [www.deba.net](http://www.deba.net) atarian kontsulta daitezke.

Sariak apirilaren 11n banatuko dira, Agirre jauregian (19:00etan).

## Bi enpresa berri sortu dira Deban, Debegesaren laguntzarekin

Debabarrena Ekinean egitasmoaren baitan, Debegesa Garapen Agentziak 21 enpresa berri sortzen lagundu du 2013an Debabarrenean -horietatik bi, Deban-. Sortutako enpresa horietako 4 industria arlokoak dira, bat metalaren sektorekoa eta gainontzeko hirurak, berriz, industria sektore berriei lotuta daude.

21 enpresa berri horiei esker, 37 lanpostu sortu dira eskualdean, 2012an baino %12 gehiago, hein handi batean, industria arloko lau enpresa berrien sorrerari esker. Izan ere, lau enpresa horiei esker 11 lanpostu sortu baitira. Debegesako arduradunen esanetan, “positiboak dira datuok, eta agerian uzten dute jarduera industrialak enplegua sortzeko duen ahalmena”. Gainera, nabarmendu dute Debegesaren laguntzarekin azken bost urteotan sortu diren enpresen iraupen tasa “oso altua” dela, %80k jarraitzen baitute lanean. Ekintzaileen profilari dagokionez, iaz enpresa berri bat abiatu zuten 32 lagunetatik, erdiak emakumezkoak dira eta, adinari dagokionez, 25 eta 45 urte bitartekoak ziren %70. Gehienak langabezian zeuden.

## Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan

“Emakumeen indarra” lelopean elkarretaratzea egin zen Emakumeen Nazioarteko Egunean. Horrez gain, martxoaren 8aren bueltan, Dunamis elkarteak iaz garatutako ekintzen memoria aurkeztu zuen, zine foruma hartu zuen Kultur Elkarteak eta Debako 11 emakumezko margolarik prestatutako erakusketa (“Isilarazten saiatu zirenean, -OIHU EGIN NUEN”-) ere ikusgai egon da Agirre jauregian.



## 87 korrikalari Manuel Mateos Memorialean

I. Manuel Mateos Memoriale ospatu zen martxoaren 8an, Deba Extreme Kirol Taldeak antolatuta, eta 87 parte-hartzaile aritu ziren lehian. Unai Hernandez Muñoz 0:26:57 (aloña\_mendi Urretxu) eta Cristina Loeda Soto 0:29:58 (independentea, Eibar) izan ziren azkarrenak zortzi bat kilometroko ibilbidea burutzen. Herri krosetako sailkapen orokorra hemen kontsulta dezakezue: [www.herrikrossa.com/clasificacion\\_manuel\\_mateos.htm](http://www.herrikrossa.com/clasificacion_manuel_mateos.htm).




## Saharautz Elkarteak, esker onez

Urtero bezala, aurten ere Saharara bidaltzeko janari biltzea egin dugu udaletxe azpian eta, herrian izandako erantzunari esker, guztira 2.100 bat kilo bildu ditugu. Ez da, ez, kopuru makala; krisi ekonomikoa bizi dugun arren, herritarrek oso ondo erantzun baitiote gure deialdiari. Lerro hauen bitartez, beraz, eskerak eman nahi dizkizuegu guzti-guztiori, zuek gabe ez garelako ezer!

Debako Saharautz Elkarteak





## Agenda

## Martxoak 28, ostirala

-Azken ostirala. Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

## Martxoak 29, larunbata

-13:00. Kalez kale txistulari taldearen emanaldia, udaletxe azpian.

## Apirilak 4, ostirala

-18:00. "Euskararen arnaguneak" tailerraren lehen saioa, Agirre jauregiko ispiluen gelan. Informazio gehiagorako: aldizkari honen 17. orrialdea.

## Apirilak 6, igandea

-8:30. Mendi irteera: **Belate-Saioa-Ultzama**. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

-17:00. **Ipuin kontaketa**, herritarrak herriko neska-mutilei kontari. Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko da. 17:00etan HHko 3, 4 eta 5 urtekoentzat; 18:00etan, LHko 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilentzat.

## Apirilak 11, ostirala

-17:00. "Euskararen arnaguneak" tailerraren bigarren saioa, Agirre jauregiko ispiluen gelan. Informazio gehiagorako: aldizkari honen 17. orrialdea.


## Apirilak 13, igandea

-8:30. Mendi irteera: **KANBO**. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

## Lehiaketa

-V. Zubeltzu bertso paper sariketa.

Martxoaren 31n amaitzen da Zubeltzu bertso paper lehiaketan parte hartzeko aukera. Debako Udalaren eta Zuhatzta Euskara Elkartearen artean antolatutako lehiaketa da. Sariketaren inguruko informazio gehiagorako eta oinarriak kontsultatzeko, ikus [www.deba.net](http://www.deba.net) ataria eta aldizkari honen 17. orrialdea. **Sari banaketa apirilaren 11n burutuko da, Agirre jauregian (19:00etan).**



## Ikastaroak

-**KZguneak** ikastaro ugari eskainiko ditu martxoan (goizez) eta apirilean (arratsaldez): oinarriko interneta, Sare Sozialak 2.0, Google Maps eta Earth, Software librea....

Euskaraz eta gazteleraz izango dira ikastaroak. Informazio gehiagorako, kontsultatu [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) ataria edo deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira.

## Gipuzkoako XLV. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa

-Martxoaren 15ean abiatu zen Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa, Garmendipeko (Azpeitia) bolatokian egindako jaurtialdiarekin, eta ekainaren 7an egingo da azken saioa, Lasturren.

Txapelketaren baitan, hamaika jardunaldi egingo dira guztira, eta sari ezberdinak egongo dira jokoan. Txapelketako saioak larunbatetan burutuko dira, arratsaldeko 17:00etan hasita.

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº. 379

Higiezin zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
[urlo@urlosi.net](mailto:urlo@urlosi.net)

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **apirilak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.**  
Burgoa Zuazo: **martxoak 21, 22, 23, 31.**  
**apirilak 1, 2, 3.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 12

BURGOA ZUAZO: martxoak 29

9:30 - 13:30



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



# ABEL

## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



# URDAITEGIA AITOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

# LENTZERIA



# MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa



# kutxabank

# RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza, 3-1 beheka - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: 943 192 249  
Mugikorrak: 629 839 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

# haizea

estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

# ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheka . 20820 DEBA  
943 029 186

**LAZKUNE**  
MILTA PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK  
1975etik zuekin!

# ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

# Calbeton

JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# L.A.

## LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

# Hazirik

ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

# Jari zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

# Zuhatz

943 191 383  
berriketan@zuhatza.com







# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETEINGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.  
**Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.  
**Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea.  
**Lleidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea.  
**Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua.  
**Madridgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almería, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madridgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa, Bartzelona.**  
Eteingabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com